

Legazpiko Agenda 21eko Foroa

2012ko apirilaren 26an egindako tailerraren akta



- Legazpiko Agenda 21eko Foroa...
- Eskola-Agenda 21eko programan berriro parte hartu duten **ikasleen izenean etorri diren 3 ikasleren – Estitxu, Asier y Mainer-** parte hartzea...
- Eta guztiontzako gaia: **elikadura jasangarria...**

... horiek izan dira gaurko tailerraren osagaiak.

Tailer interesgarria, ñabardurez eta zapozet betea, nahasketa goxoari esker!

1. Zeintzuk izan dira tailerraren helburuak?

Azkeneko urteetako ibilbidearekin jarraituz, Eskola-Agenda 21en barruan Legazpiko ikastetxeek eta ikasleek egin duten lana Agenda 21eko Forora ekarri nahi izan dugu. Aurten **elikadura jasangarria** landu dute ikasleek.

Eta topagune honetaz baliatuta, ondokoa ere egin nahi izan dugu:

- Gaiari buruz gazteek egin duten **lanaren berri izan**.
- Ikasleek nahiz Udalak hartu dituzten **konpromisoak aztertu**.
- **Elkarrekin** –Foroa eta ikastetxeetako ordezkariak– elikadura jasangarriari buruz **hausnartu**: Zer da? Zergatik da garrantzitsua? Nola bultzatzea dezakegu gai hori Legazpin?...

2. Nortzuk hartu dugu parte?

Gaurko tailerrean, 19 pertsona elkartu gara. Elikadura jasangarriaren gaiarekin interesatuta gauden 19 pertsona; Legazpiko ikastetxeak garapen iraunkorraren alde egiten ari diren lana ezagutu nahi dutenak, gauzak beste modura egin nahi dutenak, elkarrekin urratsak eman nahi dutenak.... **agertu duten konpromisoarengatik txaloa merezi duten 19 pertsona!**

Estitxu Ruiz (Haztegi ikastola) • Maider Pagola (Olazabal institutua) • Asier Paredes (Olazabal institutua) • Mailo Pinillos (Ilinti merkatarien elkarte) • Manuel Fernandez (Nagusilan) • Bixente Garmendia • Maite Odriozola (Haztegi ikastola) • Koro Zabaleta (Olazabal institutua) • Joxan Auzmendi (Legazpiko Ingurugela) • Arantza Arizmendi (zinegotzia) • Arantxa Lobo (Domingo Agirre eskolako guraso elkarte) • Oscar Valbuena (zinegotzia) • M^a Pilar Makibar Urizar (Garagune) • Sole Vergara (Garagune) • Mila Adurriaga (Garagune) • Asun Jauregi • Juan Carlos Agirre • Igor Urrate (zinegotzia) • Inma Hernández (Agenda 21eko teknikaria) • Iciar eta Zorione (Prometea, SC).

Eskerrik asko guztioi eta, eskerrik asko batez ere, Estitxu, Asier eta Maider ikasleei, Legazpiko 892 ikasle baino gehiagoren ahotsa izateagatik!



3. Zein eduki partekatu eta landu ditugu?

Lehenengo urratsa: Elikadura jasangarriari buruz ikastetxeek hartu dituzten konpromisoak eta egin duten lana ezagutu dugu.

Olazabal institutuko, Haztegi ikastolako eta Domingo Agirre eskolako ia 900 ikaslek hartu dute aurten parte Eskola-Agenda 21ean eta 2011-2012 ikasturterako aukeratu den gaia hauze izan da: elikadura jasangarria edo arduratsua.

Asier eta Maider (Olazabal institutukoak) eta Estitxu (Haztegi ikastolako) izan dira ikasleen bozeramaileak eta guztion artean egin duten lana laburtu digute. Gainera, aurtengo ikasturteko gaiarekin hasi aurretik, 2008-2011 bitarteko ikasturteetan landutako gai desberdinei buruz –ekitate eza, Milurtekoaren helburuak eta mugikortasuna– hartutako konpromisoak zein neurritan bete diren **azaldu dute**.

Benetan eskertzen diegu gaurko tailerrean gurekin egotea, orain dela 2 egun ere udaletxean egon zirelako alderdi politikoetako ordezkariekin... beraz, eskerrik asko egindako ahaleginarengatik!

Segidan, ideia nagusiak laburtuko ditugu:


Ze gai aztertu eta landu dituzte?	Zeintzuk dira ondorioak?	Zein konpromiso hartu dituzte?
Lehen Hezkuntzako 1. zikloko ikasleak		
<ul style="list-style-type: none"> Elikadura osasungarria eta jarduera fisikoa 	<ul style="list-style-type: none"> Fruta eta barazki gutxi jaten dugu. Jarduera fisiko gutxi egiten dugu. 	<ul style="list-style-type: none"> Bazkarian barazki gehiago jateko eta hamaiketarako fruta eramateko konpromisoa hartu dugu.
Lehen Hezkuntzako 2. zikloko ikasleak		
<ul style="list-style-type: none"> Hemengoak al dira jaten ditugun produktuak? 	<ul style="list-style-type: none"> Azokako fruta eta barazkiak freskoak eta osasungarriagoak dira. 	<ul style="list-style-type: none"> Bertako produktuak erosiko dizkiegu bertako baserritarrei.
Lehen Hezkuntzako 3. zikloko ikasleak		
<ul style="list-style-type: none"> Ekoizteko eta janariak kontsumitzeko moduak eta haien eragina paisaian. 	<ul style="list-style-type: none"> Paisaian duen eragina nabaria da. Era berean, paisaiak eragina du gure bizimoduan; beraz, zaindu eta babestu egin behar dugu. 	<ul style="list-style-type: none"> Ahal bada, garaian garaiko janariak hartuko ditugu.
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleak		
<ul style="list-style-type: none"> Garaian garaiko janariak, bertakoak eta elikagai-segurtasuna. 	<ul style="list-style-type: none"> Garaikoak ez diren produktuak saldu eta jaten dira; kanpotik datoz eta horrek eragina du garraioaren bidez. Produktuen etiketak, oro har, ez dira argiak eta ulergarriak. 	<ul style="list-style-type: none"> Bertako produktu gehiago kontsumituko ditugu. Eta kasu gehiago egingo diegu produktuen etiketei.
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleak		
<ul style="list-style-type: none"> Baserria eta teknologia berriak. Elikagai transgenikoak. 	<ul style="list-style-type: none"> Baserrien egoera kezagarria da. Oro har, ez dakigu zer jaten dugun (hartzen ditugun elikagaiak transgenikoak al dira? Jakin al daiteke hori? Horrek segurtasun eza eta konfiantza eza sortzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> Natura-ingurunea gehiago zainduko dugu eta, ahal dela, elikagai ekologikoak hartuko ditugu.
Batxilergoko ikasleak		
<ul style="list-style-type: none"> Elikagai-burujabetasuna eta garapen iraunkorra. 	<ul style="list-style-type: none"> Elikadura homogeneizatzen ari da. Eta, beraz, gure ekoizpena babestu behar dugu. 	<ul style="list-style-type: none"> Hartzen ditugun elikagaiak non eta nola ekoizten diren aztertuko dugu, tokiko ekoizpena babesteko.

Begirada eta eremu desberdinetatik elikadura jasangarriaren azterketa osoa egitea lortu dute. Eta, horrezaz gain, konpromiso zehatzak hartu dituzte. Lan bikaina! Zorionak!

Bigarren urratsa: Zeintzuk dira ikastetxeek Legazpiko Udalari egin dizkieten eskaerak edo proposamenak?

Escola-Agenda 21ean ikastetxeek, aztertu duten gaiarekiko konpromiso zehatzak hartzeaz gain, hainbat ekintza proposatu dizkiote Udalari. Kasu honetan, eta orain dela 2 egun alderdi politikoetako ordezkariak aurkeztu zitzaizkien proposamenak, ondoko hauek dira:


Ikasleek Udalari egin dizkion eskaerak eta proposatu dizkion ekintzak:

- 
- Asteroko azoka astean bitan egitea eta baserritarrei erraztasunak eta laguntzak eskaintzea bertako produktuak ekoiztu eta saltzeko aukera izan dezaten.
 - Udalerrian jarduera fisikorako gune gehiagoa egokitzea: bidegorria, patinetan ibiltzeko zirkuituak, jolasteko leku zabalak.....
 - Kanpaina bat egin kontsumitzaileei informazio zabalagoa eskaintzeko: produktuen etiketei buruz, garaian garaiko produktuei buruz, produktu transgenikoei buruz, ...

Hirugarren urratsa: Foroak ikasleen lana komentatu du eta zoriondu egin ditu ikasleak

Asierren, Estitxuren eta Mainerren azalpen ederraren ondoren, Foroko kideek hartu dute hitza eta hausnarketa interesgarria egin dute:

Iruzkina, hausnarketa... partekatzeko:

- 
- **Foroaren hausnarketa:** interesgarria izango litzateke ikastetxeetan bazkariak ematen dituzten catering-zerbitzuek (Auzolagun Legazpin) bertako produktuak erostea. Izan ere, gero eta gehiago dira jangelaren zerbitzua zeharka kudeatzeko aukera izatea (ikastetxeak berak erostea produktuak, janaria prestatzea,...) eskatzen dituzten ikastetxeek.
Kontu horri dagokionez, Joxan Auzmendik Bizkaiko Larrabetzuko esperientziaren berri eman digu: ikastetxeak berak kudeatzen du jangela (bertako produktuen aldeko apustua eginez...), baina horretarako Eusko Jaurlaritzak kudeaketa zuzenerako ematen dituen diru-laguntzei uko egin behar izan die. Eta badaude bestelako salbuespenak ere: Zaldibia, Arrasate edo Beasaingo institutua.
 - **Garaguneren ekarpena:** Garagunen ere ikasleek egin dituzten proposamenak aztertu dituzte. Eta haien eredia jarraituz, konpromiso batzuk hartu dituzte:
 - Fruta gehiago jatea (zukua eginda, mazedonian...)
 - Astearteetako bazkarirako zenbait produktu azokan erostea.
 - Produktuen etiketei kasu gehiago egitea (iraungitze-eguna, kontserbatzaileak dituen edo ez...)
 - Ahal dela, ontziratuta ez datozen elikagaiak erostea (zenbait eta plastiko gehiago, baliabide-xahutze handiagoa eta hondakin gehiago!).
 - Hamaketakoa biltzeko aluminiozko paperik ez erabiltzea.
 - Ahal bada, janarien bankuan laguntzea.
 - Legazpiko asteroko azokan Garagunek saltzen dituen bidezko merkataritzako produktuen salmentaren berri ematea.
 - Garapen bidean dauden herrialdeak laguntzeko kanpainei buruz informazio gehiago bilatzea, ea bertan parte hartzerik duten.
 - Zumarragan helduentzako jarri duten ariketetarako parkea bisitatzea, Legazpin aurreikusita dagoenarentzako ideiak hartzeko.

Laugarren urratsa: Aurrera! Legazpin, ze ideia, proposamen,... landu dezakegu elikadura jasangarria eta arduratsua sustatzeko?

Galdera hori erantzutea ez da lan erraza baina, hala ere, horixe izan da Foroaren erronka tailerraren azkeneko zatian. Eta lan hori errazagoa izan dadin, poliki-poliki joan gara:

- Lehenbizi, abiapuntu gisa, elikadura jasangarriarekin edo arduratsuarekin lotuta dauden kontzeptuak zerrendatu ditugu guztion artean.

Lotutako kontzeptuak:

- Garaian garaiko produktuak, elikadura osasungarria (frutekin, barazkiekin eta oinarrian zerealekin osatutako piramidea), ekoizpen ekologikoa, transgenikorik gabeko ekoizpena, beharretara egokitutako eskaintza, ekoizleei duintasunez bizitzeko aukerak ematen dien eskaintza,...; horiek izan dira jasotako zenbait ideia.

- Segidan, elikadura jasangarria eta arduratsua bultzatzea premiazkoa egiten duten **argudioak** zeintzuk diren galdetu diogu Foroari.

Aldeko argudioak:

- Elikadura jasangarria eta arduratsua ona da gure osasunerako.
- Jaten dugunari buruz eta elikadurak ingurumenean, osasunean,... duen eraginari buruz ongi informatutako herritarrak izateko eta, modu horretan, erabaki ahal izateko.
- Segurtasunagatik: Zer jaten dugu?
- Justizia sozialarengatik: Jaten dugunak zein eragina du justizian eta ekitate sozialean?
- Elikadura jasangarria eta arduratsuak mesede egiten dio tokiko garapenari, baserria bizirik mantentzeko, paisaiari,...

- Eta azken urratsera iritsi gara. Frutak eta barazkiak irudikatu nahian kolorezko kartoietan meheak erabili ditugu azkeneko ahalegina egiteko: **Legazpin, ze ideia, ekintza-proposamen,... landu dezakegu elikadura jasangarria eta arduratsua sustatzeko?**

Ikus dezagun jarraian, modu ordenatuan:



Legazpin, ze ideia, ekintza-proposamen,... landu dezakegu elikadura jasangarria eta arduratsua sustatzeko?

Ideia nagusia...	...Foroko kideen ekarpen indibidualak eta hitzez hitzekoak laburtzen duena:
<ul style="list-style-type: none"> Elikadura jasangarria sustatuko duen udal mailako plan edo programa garatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Udal mailako plan bat egin, helburuekin, ekintzekin eta epeekin.
<ul style="list-style-type: none"> Lehen sektorearen lana eta balioa duintzea, garrantzitsua delako eta lanerako eta bizitzeko aukera gisa: <ul style="list-style-type: none"> Babesa, laguntza, lursailak,... eskaini Baserriak bertatik bertara ezagutzeko bisitak antolatu 	<ul style="list-style-type: none"> Nekazariaren lanbidea duindu. Jendearentzako elikagaiak ekoiztea lan garrantzitsua eta polita da. <i>Nekazariaren lanbidea duindu, baloratu. Lanbide ederra da naturaren taupadetak markatutako denboraren baitan bizitzea.</i> Ezin dugu denok mediku, ingeniari edo ekonomista izan. Lurra behean dago baina makurtzen ikasi behar dugu. Esan dugun bezalaxe, Telleriarte eta Brinkola auzoak husten ari dira. Formulak bilatu behar dira animatzeko. Baserria lanbide aukeratzen dutenei laguntzak edo lursailak lortzen lagundu. Gazteei baserriarren lanak gerturatu, udalekuak eta klase-irteerak antolatuz.
<ul style="list-style-type: none"> Baserriko produktuak sustatzea: <ul style="list-style-type: none"> Produktuen ezaugarrien berri eman. Saltzeko eta erosteko erraztasunak eman: Lokalak, azoka-egun gehiago... Kontsumo-taldeak sustatu, zuzeneko salerosketa indartzeko. Komunikazioa - publizitatea. 	<ul style="list-style-type: none"> Bilerak baserriarrek eta gazteekin baserriko produktuak sustatzeko. Baserriko produktuak saltzeko toki bat. Azoka egunak bi izatea edo baserriarrei lokal bat uztea beraien produktuak saldu ahal izateko. Azoka-egun gehiago. Baserriko produktuak saltzeko lokal bat egokitu. Baserriarrei produktuak saltzeko lokala utzi. Baserriarrek egia esan behar dute eta eurek ekoizten dituzten gauzak bakarrik saldu. Kanpainak egin herriko baserriek ekoizten dituzten produktuak erakusten dituzten bideo eta dokumentalen bidez. Informazioa zabaldu: elikadura eta osasuna; transgenikoak. Kontsumo taldeak bultzatu, ezagutzera eman. Bertako produktuak bultzatu. Bertako produktuen publizitatea egin. Salmenta zuzena ahalbidetu. Konpromisoa duten pertsonekin kontsumo taldea sortu eta ekoizlea edo ekoizleak bilatu. Gabonetan Ilinti taldeak antolatutako kanpainak egin arropa eta abarren ordezt bertako janariekin, eta horiek saltzen dituzten denden parte hartzearekin.
<ul style="list-style-type: none"> Jaten dugunari buruz informazio gehiago jasotzea; elikaduraren eragina (osasunean, lehen sektorean, paisaian...) iritziarekin erabaki ahal izango duten herritarrek 	<ul style="list-style-type: none"> Saltokian produktuaren jatorriaren gaineko informazioa jasotzea. Garagunen elikadura jasangarria sustatzeko jardunaldia antolatzea, produktu ekologikoak erabiliz. Gazteak gehiago kontzientziatu. <i>Behintzat, egungo gazteak gero izango dituzten haurrak kontzientziatzeko.</i> Produktuei buruz informazio gehiago eman.

Legazpin, ze ideia, ekintza-proposamen,... landu dezakegu elikadura jasangarria eta arduratsua sustatzeko?	
Idea nagusia...	...Foroko kideen ekarpen indibidualak eta hitzez hitzekoak laburtzen duena:
<p>izan gaitzen.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Produktuaren jatorria eta ekoizteko modua (ohikoa, ekologikoa...) - Elikadurak osasunean duen eragina. 	<ul style="list-style-type: none"> • Produktuak nola ekoiztuta dauden begiratu erosteko momentuan. • Osasuntsu jateak dituen abantailak azaldu eta alderantziz. • Herriko merkatuan eta dendetan produktuen jatorria argi jarri eta era ekologikoan ekoiztu badira, identifikatu.
<ul style="list-style-type: none"> • Nekazaritzako gai diren lursailak babestu eta ingurunea, oro har. 	<ul style="list-style-type: none"> • Legazpin emankorrak diren lursailak babestu eta nekazaritzarako erabili. Lurra zaindu. • <i>Lurra zaindu.</i> • Zementuak irentsi egiten gaitu. <i>Porlana ez da jaten.</i>
<ul style="list-style-type: none"> • Nekazaritza ekologikoa eta herri baratzak sustatzea, baratzak etxean... 	<ul style="list-style-type: none"> • Nekazaritza ekologikoaren gaineko prestakuntza eskaini herritarrei eta baratzak eman. • Herri baratzak bultzatu alokairuan; era ekologikoan ekoizten duten pertsoneri eskaini baratza horiek. • Ikastaroak antolatu, etxean baratza txikiak edukitzeko. Gauza bera ikastetxeetan. • Baratzak jartzeko lursailak alokatu. • Baratza lantzeko ikastaroak eskaini eta baratzak alokairuan eman (oro har, erretiratuta daudenei...)

Alajaina! Ideiez eta proposamenez beteriko saski ederra osatu dugu. Orain, urratsez urrats eta guztion laguntzarekin eta konpromisoarekin itxura emango diogu proposamenari. Agenda 21eko Foroarentzako erronka berria!

Eta zuek, taldeak, "bikain" bat merezi duzue!

4. Tailerrari 2 oharrekin emango diogu amaiera

Ohi bezala, eta gehiagorako astirik gabe, Inmak emandako **2 oharrekin** bukatu dugu tailerra:

- Aurtengo FOKATU argazki-lehiaketak gaur hemen landu dugun gaia izango du helburu: elikadura jasangarria.

Beraz, atera itzazue zuen argazki-kamerak eta zuen artea, eta maiatzaren 25era arte duzue proposamenak aurkezteko aukera. Lehiaketaren oinarriak helbide honetan kontsulta daitezke: <http://www.legazpiko-udala.info/web/images/Agenda21/FokatuUG2012.pdf>



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



- Iratzarri elkarteak, Mila Nogueraren eskutik, **“baratza ekologikoa balkoian”** gaiari buruz gehiago jakiteko interesa duten 15 kideko taldea osatu da. Taldea ia itxita dago baina Foroko norbait interesatutako baldin badago, udaletxeko Agenda 21 eta Garapen iraunkorreko sailean galde dezake.

Eta bukatu dugu! Legazpiko jaiak gainean ditugu.... beraz, ongi pasatu! Maiatzean ikusiko dugu elkar!

Eskerrik asko guztioi!